

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

26/2024 TXOSTENA

Gaia: Bermeoko Udalaren eta Beruala S.A.ren kudeaketa gomendioa, etxebizitza babestuen eta zuzkidura bitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurei dagokienez

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0176 (2024)

Sail tramitatzea: Idazkaritza saila

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaiakuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.c artikulua

Aurrekariak

Lehena.- 2024ko maiatzaren 30ean Idazkaritza saileko administrazio orokorreko teknikariak etxebizitza babestuen eta zuzkidura bitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularra eta espezializatua eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeko, Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena ondoriozko eginbeharren kudeaketa materialen kudeaketa gomendioa Beruala S.A.ri egiteko hitzarmena sinatzeko proposamena egin du.

Oinarri juridikoak

Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudia onartzen duena (ROF).



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/06/2024
07:28:57

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0176
Data: 16/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FF33700X4D2U6C5A103

CSV: 07E8000FF33700X4D2U6C5A103



- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua.

Azterketa juridikoa

Bermeoko Udalak Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 5. artikulua baitan eskumena dauka hitzarmen hau sinatzeko. Artikulu horrek zera dio:

“1.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatuko du Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa, Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoaren (Etxebide) bitartez.

2.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak hitzarmenak sinatu ahal izango ditu Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren kudeaketan lagundu nahi duten udalekin; hala bada, udalerrian aurkeztutako eskaerak eta agiriak erregistratuko dituzte udal horiek.”

2/2016 legearen 17.1 artikulua arabera, kompetentziak dauzka hurrengo gaietan: “7. Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.”

Dena den, kontuan izan behar da Bermeoko Udaleko baliabidea den Beruala S.A.ren helburuen arte ez dagoela Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren kudeaketan laguntzea. Izan ere, bere helburuak dira:

“a) Eusko Jaurlaritzako abenduaren 5eko 278/1983 Dekretuan edo beste edozein legetan azaltzen dan urigintza arloko birgaitze jarduna burutzea.

b) Plangintza orokorra kudeatu eta burutzea, indarreko legediak, eta, batez be, 1169/78 Errege Dekretuak esandakoa kontuan hartuta. etxebizitza babestuen eta zuzkidura bitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularra eta espezializatua eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabilera laguntzeko.”



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/06/2024
07:28:57

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0176
Data: 16/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoa egiaztatzen
dozu.
Kodea:
07E8000FF33700X4D2U6C5A103



Kudeaketa gomendioa araututa dago 40/2015 legeko 11.artikuluan, zeinek dioen: "1. *La realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.*

Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de contratos del sector público. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en ésta.

2. *La encomienda de gestión no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio, siendo responsabilidad del órgano o Entidad encomendante dictar cuantos actos o resoluciones de carácter jurídico den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de encomienda.*

En todo caso, la Entidad u órgano encomendado tendrá la condición de encargado del tratamiento de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso en ejecución de la encomienda de gestión, siéndole de aplicación lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal.

Kudeaketa gomendioen formalizazioari buruz, 3.b atalak dio:

Cuando la encomienda de gestión se realice entre órganos y Entidades de Derecho Público de distintas Administraciones se formalizará mediante firma del correspondiente convenio entre ellas, que deberá ser publicado en el «Boletín Oficial del Estado», en el Boletín oficial de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano encomendante, salvo en el supuesto de la gestión ordinaria de los servicios de las Comunidades Autónomas por las Diputaciones Provinciales o en su caso Cabildos o Consejos insulares, que se regirá por la legislación de Régimen Local".



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/06/2024
07:28:57

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0176
Data: 16/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unida:da:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E8000FF33700X4D2U6C5A103

CSV: 07E8000FF33700X4D2U6C5A103



Izan ere, kudeaketa gomendioa laguntzeko teknika da eta ez du suposatzen titulartasuna, eskumena ezta egikaritza lagatzea. Gomendioarekin ekintza materialak edo teknikoak burutzen dira. Izan ere, kudeaketa gomendioa baliabide bat da administrazioaren antolakuntza arrazionalizatzeko, baliabide material eta pertsonalen gabezia gainditzeko eta kudeaketa eraginkorragoa lortzeko.

Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak hitzarmena ondoriozko eginbeharren kudeaketa materialen kudeaketa gomendioa Beruala S.A.ri egiteko hitzarmenaren zirriborroa aztertuta hurrengo ondorioztatzen da:

- Gomendioaren helburua da etxebizitza babestuen eta zuzkidura bizitokien eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularra eta espezializatua eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeko Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatu nahi den hitzarmenaren ondorioz, Bermeoko Udalari egokituko zaizkion betebeharren kudeaketa materiala BERUALA, S.A.ren langileek egiteko kudeaketa-gomendioa arautzea.

Aurretik esandakoarekin bat helburu hori ez dator bat Beruala S.A.ko estatutueta jasotako helburuekin.

- Idazkaritzako administrazio orokorreko teknikariaren justifikatze memoriatik ondorioztatzen da zein antolakuntzako onurak, onura ekonomikoak edo onura teknikoak egongo diren kudeaketa gomendioarekin.

- Kudeaketa gomendioaren helburua ez da Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezartzen den zerbitzua ematea.

- Hitzarmenaren edukia ikusita, hitzarmenak ez dakar ez obligaziorik, ez konpromisorik, ez konpentsazio ekonomikorik erakunde sinatzaileen artean.

- Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa da, sinatzen den egunetik aurrera eta beste lau urtez luzatu ahal izango da, indarraldia amaitu aurreko edozein unetan.

Prozedura



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/06/2024
07:28:57

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0176
Data: 16/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.
Kodea:
07E8000FF33700X4D2U6C5A103



Prozedurari dagokionez, hurrengo pausuak bete beharko dira:

- Justifikatu beharko da hitzarmenaren beharrizana eta onurak (antolakuntzan, ekonomikoki edo teknikoki).

Idazkaritza saileko administrazio orokorreko teknikariaren 2024ko ekainaren 9ko justifikazio memorian justifikatu da.

- Proposamena eta hitzarmen zirriborroa beharko da

Idazkaritza saileko administrazio orokorreko teknikariak 2024ko maiatzaren 30ean proposamena eta hitzarmen zirriborroa egin ditu.

- Eragin ekonomikorik badauka, kontuhartzailearen fiskalizazio txostena beharko da.

Hitzarmenean ageri denez eta Idazkaritza saileko administrazio orokorreko teknikariaren justifikazio memorian adierazi denez, ez du eragin ekonomikorik izango.

- Idazkari nagusiaren txostena beharko da
- Informazio Batzordearen irizpena beharko da.
- Akordioa Osoko Bilkurak hartu beharko du gehiengo osoz, 7/1985 Legearen 47.2.h artikulua arabera.
- Akordioa hartuta idazkariaren aurrean formalizatu beharko da, hitzarmena sinatuz.
- Behin formalizazioa eginda, hitzarmena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Ondorioak

Aurretik esandako guztia kontuan hartuz, **kontrako txostena** egiten zaio etxebizitza babestuen eta zuzkidura bitartekoen eskatzaileen erregistroari lotutako hainbat prozedurari dagokienez, informazio partikularra eta espezializatua eman eta herritarrei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzeko, Bermeoko Udalaren eta Eusko



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/06/2024
07:28:57

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0176
Data: 16/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FF33700X4D2U6C5A103



Jaurlearitzaren arteko lankidetzaren hitzarmena ondoriozko eginbeharren kudeaketa materialen kudeaketa gomendioa Beruala S.A.ri egiteko hitzarmena sinatzeko proposamenari. Izan ere, Bermeoko Udalari dagokionean, kudeaketa gomendioaren espedientea bat dator aipaturako legediarekin; baina kontuan izan behar da Beruala S.A.ren helburuen artean ez dagoela hitzarmenean zehaztutako funtzioak burutzeko.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2024ko ekainaren 11n

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/06/2024
07:28:57

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0176
Data: 16/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FF33700X4D2U6C5A103

